

BERMEO / Irakurketa Klubak gaur, 11:00etan, liburutegian

Haurrak irakurtzera bultzatzeko Galtzagorri gidatuko duen Jaurlaritzaren ekimena da hau.

Hiru eta sei urte arteko umeengan irakurzaletasuna bultzatzeko ekimen bat jarriko dute martxan gaur goizean Bermeoko liburutegian, hain zuzen ere, Irakurketa Klubak izeneko ekimena.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ideia da eta Galtzagorri elkarteak gauzatuko du herrian.

Haurrek gurasoekin joan behar dute 11:00etan jarritako hitzordura, eta bertan liburuen aurkezpenak, ipuin kontaketak, antzerkiak, komentarioak eta bestelako jarduerak izango dituzte.

Hiru saio, hil bakoitzean bat

Programa hau hiru saiotan banatuta dago. Lehenengoa gaurko deitu dute, bigarrena, azaroaren 22rako eta hirugarren eta azkena, urtarrilaren 24rako.

Irakurketa Klubak ekimenak ikasturte honetan Arabako eta Bizkaiko zenbait herritan burutuko dituzten literatur saioen zikloak dira. Hain zuzen ere, Bermeoz gain, Galdakaon, Markinan, Araian eta Gasteizen antolatu dituzte.

Helburua, haurrak eta gurasoak liburutegian batzea

Saio horien helburua 3 eta 6 urte arteko haurrak eta euren gurasoak elkarrekin liburutegian biltzea da eta irakurketaren inguruan elkarrekin gozatzen jartzea, antolatzaileek azaldu dutenez.

Gurasoen parte-hartzea bermatzea garrantzitsutzat jo dute antolatzaileek. Horregatik, hiru saioak larunbatetan antolatzeko proposamena egin zuten. Umeek eta nagusiek, besteak beste, testuak kontatu, kantatu eta jolastu egingo dute elkarrekin.

Saioek hiru ildo nagusi izango dituzte. Liburuen aurkezpenak

Alde batetik, antolatzaileek liburuak aurkeztu egingo dituzte. Adin horietako umeentzat egokiak diren liburuak aukeratuko dituzte eta saio horietara ziurrenik eraman egingo dituztela adierazi dute.

Antolatzaileen esanetan, liburuak gurasoei aurkeztuko dizkiegu haurrak horien irakurketara erakartzeko moduak landuz.

Bestalde, ipuin batzuk kontatuko dituzte. Alde batetik, iturri beren arabera, umeek gozatu egin dezaten, eta, bestetik, gurasoek ondoren nola egin dezaketen jakin dezaten.

Zenbait ikuskizun

Azkenik, haurrentzako zenbait ikuskizun prestatu dituzte, hala nola, itzalekin egindako ikuskizunak edota musikarekin nahastutako kontakizunak.

Saioetan parte hartzeko izena eman behar dute haurrek eta gurasoek, liburutegian bertan. Ekimen hau doakoa dela azaldu dute Galtzagorri elkarteak. Saio guztietara joatea nahitaezkoa da.